

Haitz Biribil Elkartea

Barne Araudia

I. SARRERA

Esku artean duzuna Haitz Biribil Elkarteko barne araudia da. Zuzendaritza batzordea da beronen organo gorena. Elkartea izateaz gain, bere helburuetako bat herri mailan eragilea izatea da.

II. EGITURA

Haitz Biribil Elkarteko egitura BAZKIDEEK, ASANBLADAK, JUNTAK eta ZUZENDARITZA BATZORDEAK osatzen dute. Jarraian horietako bakoitzaren definizio, osaketa, eginkizun, eskubide eta betebeharrak azaltzen dira.

A. BAZKIDEA

1.- Haitz Biribil Elkarteko Bazkide izateko baldintzak elkartean izena eman, Zuzendaritza batzordearen adostasuna jaso eta honek zehaztutako kuota ordaindu.

Eskubide eta betebeharrak:

2.- Bazkideak, asanbladan esku hartu, iritzia eman eta bozkatzeko eskubidea du.

3.- Bazkideak, antolatutako ekintza zabaletan parte hartzeko eskubidea du.

4.- Bazkideak, elkartea eta bertako materiala erabiltzeko eskubidea du.

5.- Bazkidea, elkartearen egoeraren jakitun izateko eskubidea eta betebeharra du.

6.-Bazkidea, junta, zein eratu daitezkeen beste ardura-taldeetan egoteko eskubidea du. Bazkide aktiboen kasuan, asanbladak horrela eskatzen badu betebeharra izango da. (Bazkide aktibo kontsideratua izango da elkartearen erabilera jarraitua egiten duena)

7.-Bazkideak, barne araudia irakurri eta bere osotasunean errespetatzeko betebeharra du. Bere ardura, hartzen diren erabaki eta arauen onarpena eta hauek betearazteko konpromisoa da.

8.-Bazkideak, elkarteko baliabideen erabilpen egokia egiteko betebeharra du, ezartzen diren kontsumo eta erabilpen kosteen ordainketa zuzena eginez.

9.- Bazkideei dagokie elkarteko giltza kontu handiz gordetzeko betebeharra du.

10.-Bazkideak, urtean zehar burutuko diren asanblada orokorretan parte hartzeko betebeharra du.

11.- Ezohizko egoeren aurrean bazkideek bi bide dituzte asanblada deitzeko:

- Deialdia juntari luzatu eta horrek onartzea.

- Bazkideen %30en babesa izatea, sinadurak batuta.

B. ASANBLADA

12.- Asanblada, Haitz Biribil Elkarteko bazkide guztiek osatzen dute.

13.- Asanbladan hartu beharreko erabakiak bozkatu egingo dira, eta gehiengo sinplea beharko da onartua izateko.

Eginkizunak:

14.- Asanblada urtean behin elkartuko da, gutxienez. Bazkideei 15 egun lehenago jakinaraziko zaie asanblada eguna.

C. JUNTA

15.- Junta , Asanbladak bozketa bidez aukeratutako 7 kide kargudunek eta borondatezko nahi adina bazkidek osatzen dute.

16.- Juntako karguak hauek dira: presidentea, idazkaria, diruzaina bat, kultura arloko arduradun bat eta hiru gamuzero.

17.- Bozketa bidez aukeratzekoan, taldea adina eta sexuari dagokionez orekatua izatea lortu beharko da.

18.- Junta gutxienez hilean behin elkartu beharko da.

19.- Taldekideek bi urtetarako konpromisoa hartuko dute eta urtero, junta erdia berriztatuko da. Beti ere Zuzendaritza batzordearen oneritzia jaso ostean.

Eginkizunak:

20.- Elkartearen jarraipena egitea.

21.- Gutxienez urtean behin asanblada deitzea.

22.- Bazkide izan gabe, elkartean sarritan dagoen pertsonaren sarrera abusiboa neurtzea

23.- Presidenteak:

- Elkarteko funtzionamenduaren jarraipena egitea.

- Asanbladatako gai ordenak prestatzea

-Asanbladako dinamizatzailea

24.- Idazkariak:

- Asanblada eta batzarretako aktak hartzea.

- Asanblada eta Juntak antolatzen dituen ekintzetako deialdiak egitea.

- Juntako oharrak, ohar taulan edo ordenagailuan jartzea.

25.- Diruzainak:

- Elkarteko diru-sarrerak eta gastuak kontrolatzea..
- Gutxienez astean behin elkarteko kontuak eguneratu eta dagoen dirua jazotzea. Domeka iluntzean edota astelehen goizean.

26.- Kultura arloko arduradunak:

- Ekintza berezien koordinazioa egitea.
- Ekintza berezien antolatzaileei aholkularitza lana egitea.
- Ekintza berezien protokoloaren jakin arazle izatea.

27.- Gamuzeroek:

- Bukatzen diren barrako eta sukaldeko existentzien kudeaketa eta mantenua egitea.
- Burutzen diren ezohiko ekintzetara azaltzea, funtzionamendu egokia ziurtatzeko.
- Barne araudiaren betearazle zuzenak izatea.
- Otorduetan sobratutako jakien kudeaketa egitea.
- Garbiketaren jarraipena egitea

III. ARAUDIA

28- Euskara da elkarteko hizkuntza ofiziala.

29- Elkartean ez dira onartuko eztabaida bortitzak, elkarrenganako irain pertsonalak, eta jarrera sexista eta homofoboak.

30- Bazkideek dute lehentasuna elkartean antolatutako ekintzetan parte hartzeko.

31- Bazkidea izango da gonbidatuen erantzulea.

32.- Bazkide ez denak ezin du erabili bazkide giltza.

33.- Giltza galduz gero, Juntari esan beharko zaio eta giltz berriaren gastuak bazkideak ordainduko ditu.

34.- Herrian burutzen diren kontzentrazio eta manifestazioetan ezin da elkartean egon.

35.- Bazkideren batek juntari zerbait adierazi nahi izan ezker, eskuz idatzitako mezua diru kutxan sartuaz egi dezake. Beti ere bazkide zenbakia adierazi beharko dute.

36.- Sarrera debekatua dute:

- Bere buruaren jabe ez direnek.
- Zuzendaritza batzordeak, juntak edota asanbladak kaleratutakoek.

Prozedura arauak:

37.- Bazkideak momentuan ordaindu beharko du kontsumitzen dena.

38.- Elkarteko objektu eta tresnak ezin dira lokaletik atera. Salbuespenak juntak baimenduko ditu.

39.- 23:00 tatik aurrera zarata gutxituko da: Musika, lagun artekoa, leihoak itxi....

40.- Elkartetik irteten den azken bazkideak, leihoak eta atea ondo zarratuta, argiak itzalita,... eta oro har dena jasota dagoela ziurtatu behar du.

41.- Hemen zehazten ez den zerbait gertatuko balitz edo beste edozein arazoren aurrean zuzendaritza batzordeak hartuko du erabakia, beti ere gatazkan dauden alde guztiak kontuan harturik. Azken hitza beti Zuzendaritza Batzordeak izango du.

42.- Elkartea ezin izango "After Hour" bat bihurtu

A. ESPAZIOAK

Barra:

43.- Bazkideak soilik sar daitezke.

44.- Erabilitako material guztia garbitu, sikatu eta bere lekuan jasota utzi beharko da.

Sukalde eta jantokia:

45.- Bazkide ez dena sukaldera sartu ahal izango da, beti ere bazkidea berarekin badago.

46.- Jantokiak 45 lagunentzako kapazitatea du eta ezin da gainditu. Salbuespen kasuetan Juntaren oneritzia izan beharko du.

47.- Otordua ohar taulan erreserbatu behar da. Horretarako taulan jarriko den erretserba orria beteko da. Bertan erreserba data, bazkide zenbakia, otorduaren eguna eta ordua, jende kopurua eta mahai zenbakia(k) adierazi behar dira.

48.- Lehentasuna erreserba datak ezarriko du. Elkarreak aurreikusten dituen ospakizunek lehentasun hori gainditu dezakete.

- 49.- Erreserba egiterakoan elkarte libre dagoela edo dagoenarekin bateragarria dela ziurtatu behar du bazkideak.
- 50.- Otordu handien kasuan (25 pertsonatik gorakoak) erreserba gutxienez 15 egun lehenago egin beharko da, mahai eta aulki gehiago atera beharko balira.
- 51.- Elkartean egiten diren otorduetan elkarte-zerbitzua pertsonako ordaindu behar da.
- 52.-Kopau (otordu) txikien kasuan elkarte zerbitzua pertsona kopuruaren herenari dagokiona izango da.
- 53.- Otorduetan zikindutakoa sukaldean utzi ahal izango da garbitzaileak garbitzeko. Garbitu behar diren gauza guztiak harri ONDOAN utziko dira ordenatuta. Zerbitzua ordaindu egin behar da. Harrikoa norberak eginez gero, elkarteko zerbitzua ordaindu eta sukaldea guztiz jasota utzi behar da.
- 54.- Sukaldean ezin izango dira edalontziak edo barrako beste ezer utzi. Hauek barran garbitu behar dira.
- 55.- Otordua garbitzailearen jai egun bezperan egiten bada, garbiketa bazkidearen ardura da.
- 56.- Egun berean bazkaria eta afaria suertatu eta bateragarriak ez badira, bazkarikoek dena behar bezala garbitu eta jaso beharko dute arratsaldeko 8ak baino lehen.
- 57.- Jantokia garbi uztea (mahaiak, aulkiak, lurra, hautsontziak,...) bazkideen lana da
- 58, - Otorduetan sobratzen den janaria errespetatzeko, elkarteko hozkailuan gorde beharko da, bazkide zenbakia, ordua eta datarekin identifikatuta. 24 orduren ostean bertan jarraitzen badu beste bazkide batek jan dezake. 48 ordura zakarretara botako da. (gamuzeroen lana)

Terraza:

- 59.- Terrazan erabilitako mahaiak, aulkiak... garbi eta bere tokian gordeta utzi behar dira.
- 60.- Terrazaren ordutegia:
- Asteazken zehar: 19:00etatik gaueko 12etara.
 - Asteburuetan: Goizeko 10etatik gaueko 12etara

B. EKINTZA BEREZIAK:

- 61.- Ekintza Bereziak: Elkarteko eguneroko aktibitatek kanpo dagoen edozein ekintza (kirol partiduak, hitzaldiak, pelikulak, antzerkia. ..).
- 62.- Ekintza bereziak antolatzerakoan, kontuan izan beharko da elkarteko funtzionamenduarekin bateragarria izatea.
- 63.- Edozein bazkidek antolatu dezake ekintza bereziren bat.

- 64.- Ekintza bereziak juntari pertsonalki jakinarazi behar zaizkio eta onartuak izan behar dira.
- 65.- 15 egun lehenago abisatu beharko da ekintza bereziaren data, baldin eta elkarteko egitura aldatu behar bada.
- 66.- Antolatzailearen ardura izango da elkartea bere onera itzultzea.
- 67.- Azken hau betetzen ez bada FALTA LARRIA izango da.

C. FALTAK

Falta larriak (elkarteko giltza kentzeko arrazoi nahikoa direnak)

- 68.- Elkartearen kontra jarritako salaketan eragilea izatea.
- 69.- Ezarritako kuotak ez ordaintzea.
- 70.- Zerbait kontsumitu eta ez ordaintzea.
- 71.- Bazkideari dagozkion betebeharrak eta ardurak ez betetzea.
- 72.- Elkartean lapurtu edota edozein motatako iruzurrak egitea.
- 73.- Elkarbizitzarako beharrezko diren jarrenak ez mantentzea eta elkartean giro txarra sortzea.
- 74.- Urtean 5 aldiz falta arinak errepikatzea

Falta arinak (errepikatuz gero zigorra suposa dezaketenak)

- 75.- Araudia ez errespetatzea.
- 76.- Bazkide ez direnak, bazkideen funtzioetan aritzen uztea.
- 77.- Garbitasuna ez zaintzea.
- 78.- Tresna eta makina elektrikoak (estraktoreak, labea, argiak,...) martxan uztea
- 79.- Leiho zein ateak irekita uztea.